



**Iurreta**  
Eleizateko Udala

## **IURRETako Legealdiko Plana 2019-2023**

Legealdiko Plana fitxategian, Gobernu Taldeak udalerrriaren irudipenerantz aurrera egiteko estrategikotzat jotzen dituen ardatz nagusiak jaso dira eta legealdian zehar beren-beregi garatu nahi diren estrategiak zehaztu dira, baita zein proiektu edo jarduketa-ildotan eusten diren ere.

### **XEDEA**

Iurretako Udala bere jarduera garatzen duen tokiko administrazio publiko bat da eta, bertan, herritarren zerbitzura dauden profesionalak eta kargu hautetsiek jarduten dute:

- ✓ Iurretako herritarrei pertsona giza garatzeko aukera emango dieten eta gizarteak kohesio handiagoa izatea ekarriko duten oinarrizko baldintzak ahalbidetzen dituzte.
- ✓ Iurretan dauden interes eta sentsibilitate ezberdinen arteko bizikidetzaren alde egiten dute.

### **IKUSPEGIA**

Iurretako Udalak herritarren premiei erantzuna eman nahi die baliabide publikoak zorrotasunez, eraginkortasunez eta arduraz kudeatuz. Horretarako, hauxe egingo du:

- ✓ arreta hurbila eta pertsonalizatua eskaini
- ✓ parte-hartzea, komunikazioa eta gardentasuna sustatu

Hori guztia betetzeko, honako ardatz estrategiko hauek ezarriko ditugu legealdiko hurrengo lau urteetarako:

## **1. ARDATZA: HIRI BERRONERATZEA, MUGIKORTASUNA ETA ETXEBIZITZA**

### **1.1. Bidebarrieta kalea berritzeko lanak hasiko ditugu**

N634 errepidea etorbide hiritar eta irekiagoa izatea lortu ostean, Bidebarrieta kalea oso-osorik berrituko dugu bertan bizi diren herritarrekin batera. Horrela, kale adeitsu, moderno eta irisgarri bat lortuko dugu.

### **1.2. Bideondoko bizitegi-eremua garatuko dugu (kultur etxearen ondoan)**

Etxebizitzak gure helburuetako bat dira, eta Bideondoko bizitegi-eremua garatu nahi dugu etxebizitza jasangarriekin. Era horretan, bateragarria izango da berdegunez (2.500 m<sup>2</sup>) betetako inguruarekin. Herrigunearen birrikak izango dira, eta hiri-kirolerako (skatea, patinatzea, biziketa...) zein paseatzeko eremuak egongo dira. "Green City" sektore bat sortu nahi dugu, etxebizitzak eta aisialdirako eremua uztartuko dituena.

### **1.3. Udalerrian mugikortasuna hobetzen jarraituko dugu**

Orain arte gidari izan ditugun printzipioak aintzat hartuta, udalerriko mugikortasuna hobetuko duten neurri berriak ezarri nahi ditugu: lehentasuna herritarrentzat, irisgarritasuna eta ondo antolatua dagoen ingurune bat. Neurri horien artean, besteak beste, aldrietako aparkaleku bat eraikitzea eta bizitegiko mugikortasun-azterlan bat egitea daude.

### **1.4. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) onartuko dugu**

Plan Orokorrean lurretaren etorkizuna **udalerrira irauten edo jasangarri** moduan jasota gelditzea nahi dugu. Eraikitze- eta hiri-ekipamenduak hobetzeko irizpideak nagusituko dira, eta bai eremu libreak hobetzekoak, eta ondarea eta natura-paisaia kontserbatzekoak ere. Horrekin batera, lurzoru industrialak erabilgarri izateko beharra hartu behar da aintzat, baina garapen orekatua eta jasangarria eraldatu gabe.

### **1.5. Komun publikoak jarriko ditugu herrigunean**

Jakitun garez harrigunean komun publikoak eduki behar direla, jartzeko kokaleku egokiena bilatuko dugu.

### **1.6. Auzune Taxiaren alde egiten jarraituko dugu**

lurretako bizilagunei nahierarako garraio-sistema eskaintzen jarraitu nahi dugu, haien mugikortasuna eta funtsezko zerbitzuetara, aisiakoetara eta kulturakoetara joan ahal izatea hobetzeko bidea emateko.

### **1.7. Herrigunean higiezinak birgaitzeko laguntzak handituko ditugu**

Bizilagunen komunitateei eraikinen fatxadak eta estalkiak berritzeko, eta igogailuak eta irisgarritasun-elementuak kokatzeko laguntzak ematen jarraituko dugu.

### **1.8. Gure irisgarritasun-plana hobetuko dugu**

Kale-plazetan eta udal-eraikinetan oztopo arkitektonikoak kentzen jarraituko dugu, hartara, irisgarritasuna hobetzeko, eta arreta berezia jarriko dugu eskola-esparruetan eta -eraikinetan.

### **1.9. Arriandiko bizilagunen irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetuko ditugu**

Gure iritziz, N634 errepideak mugikortasun-mota guztiei eman behar die zerbitzua. Horrenbestez, herrigunetik igarotzen den zatian egin dugun moduan, Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartuko dugu Arriandiko bizilagunen **irisgarritasuna, segurtasuna eta mugikortasuna hobetzeko konponbide bat**.

## **2. ARDATZA: AISIA, KIROLA ETA GAZTEAK**

### **2.1.. Etxego gaztelekua garatzea sustatuko dugu**

Herriko gazteek herriko gazteentzat sortutako programazioa bultzatuko dugu, eta haien aisialdirako askotariko espazio jasangarri bat sortuko dugu, aktiboki parte har dezaten. Halaber, txikientzat diren jardueren eskaintza sendotuko dugu (hurren ludoteka, asteburuetako jarduerak...).

### **2.2. Aisia-eskaintza askotarikoa sustatzen jarraituko dugu**

Iurretako herritar guztientzako aisia-eskaintza izango da, belaunaldi desberdinen interesa pizteko modukoa, besteak beste, ikastaroak, tailerrak eta elkarteekin koordinatutako jarduerak hartuko dituen.

### **2.3. Kirol-azpiegitura berriak behar ote diren eta egun daudenak hobetu behar diren aztertuko dugu**

Hiri-garapen berriek ahalbidetuko digute kirola egiteko egokiak diren lurzoruak izatea, eta, beraz, gure beharrei zeintzuek erantzuten dieten ikusi behar dugu.

Era berean, egungo instalazioak hobetzen eta jasangarriagoak izan daitezela egiten jarraitu behar dugu. **Kirol-modalitate berriak (padela, boulderra...) egin ahal izateko instalazioak edukitzeko aukera aztertuko dugu.**

### **2.4. Kirol-erakundeei laguntza eta babesa ematea bermatzen dugu**

Iurretako kirol-klubak eta -elkarteak gizartea egituratzen eta balioak transmititzen funtsezko eginkizuna duten agenteak dira, eta, hortaz, guretzat oinarritzakoa da haiekin elkarlanean aritzea eta egiten duten lanean babesa ematea.

### **2.5. Gaztedi Durangaldea (gazteak laneratzea)**

Zeharkako proiektuen eta proiektu integralen alde egiten jarraituko dugu, hala nola Gaztedi Durangaldearen alde, gazteen prestakuntzarako eta haiek laneratzeko, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoarekin batera.

### **2.6. Gazteek etxebizitzak alokatzeko laguntzak ematen jarraituko dugu**

Emantzipatzeko prozesuan gazteei laguntzeko funtsak ematen jarraituko dugu.

### **2.7. Bertako kirolak, gureak, babestuko ditugu**

Bertako kirolak, gureak, gure kultura-ondarearen funtsezko zatia dira, eta, hortaz, haiek bultzatzen dituzten jarduera, federazio eta talde guztiak babestuko ditugu.

### **2.8. Aisiarako eremuak sustatuko ditugu, naturarekin harremana duen aisia bermatzeko**

Hiri-ingurunetik hurbil dauden aisia-eremu berriak sustatu eta daudenak hobetuko ditugu.

## **3. ARDATZA: EUSKARA, KULTURA ETA HEZKUNTZA**

### **3.1. Ibarretxe kultur etxeko ekitaldi-aretoa eraberrituko dugu**

Gure kultura-azpiegiturak egokituko ditugu, eta gauzatzen ditugun jardueretarako espazio egokiak eskaintzea da gure erronka. Horretarako, Ibarretxeko beheko solairua erabilera ezberdinetarako espazio funtzional, eraginkor eta moldagarria izatea lortu nahi dugu.

### **3.2. Herriko bizitzaren eremu guztietan euskara sustatzen jarraituko dugu**

Euskara gure hizkuntza da, eta, beraz, Euskararen Aholku Batzordearen eta Euskara Zerbitzuaren bidez, arlo publiko eta pribatu guztietan euskara erabiltzea sendotzen jarraituko dugu. Udalak herritarren hizkuntza-hautua errespetatuko du.

### **3.3. Euskara-plan berria idatziko dugu datozen lau urteetarako**

Horrekin, familia-transmisioa piztu eta bultzatuko dugu, ikastetxeekin eta gurasoen elkarteekin lankidetzan arituta, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea, Euskaraldia. Herriko elkarteak eta taldeak babestuko ditugu erabiltzeko.

### **3.4. Obrak eta zerbitzuak azpikontratatzeko gure politikan euskararekiko duen presentzia eta konpromisoa aintzat hartuko ditugu.**

### **3.5. Joseba Sarrionandiari buruzko ibilbide bat jarriko dugu martxan**

Joseba Sarrionandiaren unibertsoari buruzko ibilbide bat bultzatuko dugu, kultura, euskara eta gure herrian literatura-turismoa egitea batuko dituen.

### **3.6. Kultura-arloko programazio askotarikoa eta kalitatekoa eskaintzen jarraituko dugu**

Ibarretxe kultur etxean eta Udal Liburutegian egingo dugu, baina, era berean, espazio publikoa erabiliko dugu, kultura-jarduerak egiteko toki gisa. Halaber, gure kultura-eskaintza auzo desberdinetara ere eramango dugu.

### **3.7. Kultura-elkarteen lankidetzaren eta babesaren bermatuko dugu**

Egitura asoziatibo indartsua izaten jarraitu behar du gure udalerriak, herritarren parte-hartzea bermatuko duena, eta horretarako, Udalaren babesa oinarritzakoa da, bai maila ekonomikoari dagokionez bai eta euskarri logistikoa eta materiala emateari dagokionez ere.

### **3.8. Goiuria Kultur Gunea, bilera- eta dinamizazio-gune gisa**

Iurretako elkarteek gune bat dute beren jarduerak antolatu eta dinamizatzeko, eta horrek eragina du komunitate osoaren mesederako.

### **3.9. Maiztegi Herri Eskola hobetzeko inbertsioak egiten jarraituko dugu**

Maiztegi Herri Eskola hobetzea eta etengabeko mantentze-lanak egitea bermatzen dugu. Zehazki, eraginkortasun energetikoko neurriak aplikatzen, haurrentzako jokoak ordeztzen, areto-futboleko, saskibaloiko zoladurak hobetzen... jarraituko dugu.

### **3.10. Hezkuntzarako laguntzei eutsiko diegu**

Gure seme-alaben hezkuntzatik eratorritako gastuetarako laguntzak lehentasunezkoak izaten jarraituko dute, haur-eskolatik DBHraino.

### **3.11. Gure ondarea ezagutaraziko dugu**

Gure bizilagunen artean ezagutarazi behar dugun kultura- eta paisaia-ondarea dugu. Horretarako, irteerak eta bisitak antolatuko ditugu, elkarteekin eta ikastetxeekin batera.

## **4. ARDATZA: GARAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA ETA MERKATARITZA**

### **4.1. Enplegua gure lehentasuna da**

Ahal diren baliabide guztiak bideratu behar ditugu enplegu egonkorra eta kalitatekoa sortzera. Hori dela-eta, alderdi aktiboa izango gara bai Bizkaiko Foru Aldundiak bai eta Amankomunazgoak sustatzen dituzten enplegu- eta prestakuntza-programetan. Halaber, beste hainbat programa bultzatzen jarraituko dugu, hala nola PAIL izenekoak

(laneratzea babesteko programa). Hartara, egoera ahulenean dauden herritarrak gizartean eta lanean sartzea sustatuko dugu.

#### **4.2. Herrigunea merkataritza aldetik dinamizatzearen aldeko apustua egin nahi dugu**

Herrigune atseginago bat edukitzeko gure apustuari eutsiko diogu, eta kaleak gure bitzita sozialerako erabiltzen ditugula bermatuko dugu. Merkataritzako jarduera berriak ezartzen jarraituko dugu, enpresa-proiektuen lehiaketaren bidez, eta dauden saltokiei lagunduko diegu, bertako dendetan kontsumitzea sustatzeko ekimenak bultzatuta.

#### **4.3. Aita San Migel plaza dinamizatzearen alde ere egiten dugu**

Plaza eremu pribilegiatua dela uste dugu, erakargarri bihurtu behar duguna. Ostalaritzako edo beste edozein motatako establezimendu bat kokatzeko aukerak esploratzen jarraituko dugu, horretarako ekimen pribatua erraztuta.

#### **4.4. Saltoki tradizionaleri beren jardunbidea hobetzen lagunduko diegu**

Dendak Bai elkartearekin elkarlanean, bertako saltokiei teknologia berrien, banaketarako plataforma digitalen eta marka digitalaren gaineko prestakuntza hartzen lagunduko diegu.

#### **4.5. Ekintza ekonomikoak eta udalerrian turismoa garatzekoak sustatuko ditugu.**

Aktiboki arituko gara lankidetzan, eskualdeko turismo-sektorea garatzen, bultzatu beharreko jarduera den heinean, aberastasuna eta enplegua sortzen duena.

#### **4.6. BEHARGINTZAren bidez, COWORKING guneak sortuko dugu**

Ekintzailetza eta ideiak sortzea benetan bultzatzearen alde egiten duen amankomunazgo bat eduki behar dugu, elkarrekiko erlaziorako gune egokiak sortuta, finantzaketa-formula berritzaileak identifikatuta eta ekintzaileari lagun eginda.

#### **4.7. Industrialdeak berroneratzearen alde egiten dugu**

Enpresek baldintza egokiak behar dituzte lurretan kokatzeko. Hori dela-eta, haiek hartzen dituzten industrialdeak hobetu behar ditugu, zerbitzuak eman behar dizkiegu eta baldintza okerragoetan daudenak berroneratu behar ditugu.

## **5. ARDATZA: INGURUMENA ETA LANDA GARAPENA**

### **5.1. Sustatu egingo dugu energia berriztagarriak erabiltzea**

Sustatu egingo dugu udal-eraikin eta arlo guztietan energia berriztagarriak erabiltzea (geotermia, LED, ibilgailu elektrikoak, eguzki-plakak udal-eraikinetan...), eta Euskadiko Energia Estrategia 2030 delakoarekin egingo dugu bat. Energia-kontsumoa murrizteko eta berotegi-efektuaren gasak murrizteko konpromisoa hartuko dugu.

### **5.2. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune bat kokatzeko prozesua abiaraziko dugu**

Jasangarriagoa den mugikortasunaren alde egitean, gure udalerrian ibilgailu elektrikoak ugaritzeak berekin ekar ditzakeen beharrei erantzun nahi diegu. Ildo horretan, %80 arterainoko hoberia emango diegu ibilgailu elektrikoari eta hibridoari ibilgailuen zergan.

### **5.3. Plastikoa murrizteko ekintzak bultzatuko ditugu**

Plastikoaren erabilera murriztea nabarmentzen duten kanpainak egingo ditu Udalak: tuperrak banatzea eta paperezko poltsak erostetak egiteko, “boc and roll” esaten zaienak banatzea ikasleei, birzikla daitezkeen elementuak erabiltzea udal-ekitaldietan, sentsibilizazio- eta motibazio-kanpainak egitea birziklapenarekin lotuta...

#### **5.4. Udalerriko bideen garbiketa hobetuko dugu**

Bideen garbiketaren hurrengo esleipenean, garbiketa-maiztasunak, baliabide materialak eta giza baliabideak hobetuko ditugu. Halaber, garbitzeko erabiltzen diren elementuak elektrikoak izango dira, bai kale-garbigailuak bai ibilgailuak ere, zarata eta ingurumenerako eragina eta kaltea murrizteko.

**5.5. Ibaien ertzak garbi edukitzeko ekimenak garatuko ditugu**, beste administrazio batzuekin eta ikastetxeekin elkarlanean arituta, Eskola Agenda 21 egitasmoaren esparruan.

#### **5.6. Udalerriko berdeguneak handituko ditugu**

Bizitegi-sektore berriak aukera ezin hobea dira herriguneko berdeguneak handitzeko, eta, beraz, bereziki nabarmenduko dugu haiek handitzea eta ondo edukitzea.

#### **5.7. Mendi publikoak era jasangarrian kudeatuko ditugu**

Udal-titulartasuneko mendiak handitzen jarraituko dugu, eta, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan arituta, jasangarritasun-irizpideak kontuan hartuta eta bertako espezieak lehenetsita kudeatuko ditugu.

#### **5.8. Landa-auzoetan beharrezkoak diren azpiegiturak hobetzen jarraituko dugu**

Gure herriko landa-eremuetan beharrezkoak diren azpiegiturak hobetzen jarraituko dugu (bideak, argiteria, Internet...), eta aisialdirako eta entretenimendurako ekitaldiak hurbilduko dizkiegu (Auzorik Auzo). Gainera, mugikortasuna erraztuko dugu (Auzo Taxi) eta bai auzoen arteko oinezko eta bizikleta-bidezko konexioa ere.

#### **5.9. Landa-eremuetan konpostajea bultzatuko dugu, eta bai hondakin fitosanitarioak eta inauste-hondakinak biltzeko guneak ere**

Landa-eremuetan nork bere konposta egiteko programak bultzatzen jarraituko dugu, eta bai nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak biltzeko eredu bat ere, Urkiola Landa Garapen Elkartearekin elkarlanean.

#### **5.10. Gure ibilbide osasungarriak emendatu eta hobetuko ditugu ibilbide berriekin.**

Azo desberdinen eta jolas-eremuen arteko konexioa errazteko balioko dute, gainera.

#### **5.11. Ingurumen-sentsibilizaziorako eta -kontzientziaziorako kanpainak egingo ditugu**

Gure ustez, garrantzitsua da herritarrek jolas-eremuak, oinezkoentzako ibilbideak eta gure mendiak ezagutzea, balioestea eta errespetatzea.

#### **5.12. Putzu septikoak kokatzen eta haiei eusten lagunduko dugu**

Putzu septiko berriak kokatzen dituzten baserriei laguntzen jarraituko dugu, eta bai putzuak garbitzen eta haiei eusten laguntzen ere.

## **6. ARDATZA: GIZARTE EKINTZA**

### **6.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planaren alde lan egingo dugu**

Iurretako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako I. plana onetsi ostean, garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabide ekonomikoak jarriko ditugu, eta emakumeak ahalduntzeari buruzko gure programak indartuko ditugu berdintasunaren alde lan egiten duten gizarte- eta erakunde-eragile guztiekin batera.

**6.2. Udaleko obra eta zerbitzuen azpikontratazioetan emakumeen eta gizonen arteko soldata-parekotasuna zainduko dugu**

**6.3. Adinekoekin lagunkoiagoa den herri baten alde egingo dugu lan**

Adinekoen bizi-kalitate ona bermatuko dugu, lurreta herri lagunkoiagoa izan dadin. Boluntariotzari, ahalduntzeari eta zahartze aktiboari buruzko gure programei jarraipena emango diegu, eta haietzako zerbitzuak indartuko ditugu, haiek ordezkatzeko dituzten elkarteekin lankidetzan arituta.

**6.4. Adinekoen artean integratzea emateko plan bat egingo dugu**

Adinekoek dituzten beharrei erantzun diegu, elikatzeko-arloan, gizarteratzekoan (Nagusien bidelagun) eta udal-zerbitzuak eskuratzekoan, besteak beste, liburutegia. Gehien behar dutenei oztoko arkitektonikoak kentzen lagunduko diegu.

**6.5. Adineko pertsonen eta gazteen artean esperientziak trukatzeko programa bat bultzatuko dugu**

Belaunaldien arteko esperientzia-trukea aberasgarria da denontzat. Hori dela-eta, abian jarriko dugu gure herrian, gizarte integratzailea, parte-hartzean oinarritua eta aktiboa sustatzeko.

**6.6. Kultura-artekotasuna era hurbilean kudeatuko dugu**

Kultura-artekotasuna errealitate bat da, eta harekin era hurbilean, arduraz eta gizalegez lan egin behar dugu, besoz beso, inplikaturik dauden pertsonekin. Programak sustatzen jarraituko dugu, besteak beste, kulturen arteko jaia, Elkarrekin Berbetan eta kultura-arloko boluntariotza, iritsi berriak diren familiei harrera egiteko.

**6.7. Garapen-bidean dauden herrialdeekiko lankidetzan lagunduko dugu,** eta, horretarako, ekonomia- eta gizarte-garapeneko proiektuak eta programak finantzatu eta kudeatuko ditugu, genero-ikuspegiari lehentasuna emanda.

## **7. ARDATZA: PARTE HARTZEA ETA GARDENTASUNA**

**7.1. Administrazio elektronikoa eta administrazioen arteko elkarreragingarritasuna sustatuko ditugu**

Herritarrei administrazioarekiko harremana erraztu nahi diegu, eta horretarako izapide elektronikoen indartuko ditugu (sarrerak, jakinarazpenak, ordainketak...). Era berean, "espazio erkidea" edo "leihatila bakarra" bultzatuko dugu, administrazio desberdinekin komunikatzeko.

**7.2. Herritarrek parte hartzeko mekanismoak sendotuko ditugu**

Parte-hartze programa bat edukiko dugu, herritarrei kontsulta egin behar zaien proiektuetarako. Era berean, herritarrek parte hartzeko kontseiluak eta mintzalekuak bultzatuko ditugu, berdintasuneko, euskarako, bizikidetzako, hezkuntzako... estrategiak garatzeko, hiri-garapenekoak eta parte-hartze aurrekontuak garatzeko.

**7.3. Barneko lan kolaboratiboa sendotzen jarraituko dugu,** administrazio-prozesuen etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa-eredu batekin. Zehazki, herritarrekiko zerbitzuaren kalitatea hobetzera bideratuta egongo da.

**7.4. Udalaren webgunea hobetuko dugu, errazagoa eta erabilerrazagoa izan dadin,** eta bai tresnak ere, Udalarekin komunikazio zuzena eta etengabea eduki ahal izateko (Kalezaindu).

#### **7.5. “OPEN GOVERNMENT” gobernu irekiaren alde egiten dugu**

Gure kudeaketaren gardentasunerako konpromiso argia dugu, horretarako, datu publikoak eskuratzea hobetuta, osoko bilkura arrunten gaineko informazioa emanda eta gure kudeaketaren kontuak emanda aldian behin. Helburu hori izanda baliatuko ditugu webguneko gardentasun-ataria, sare sozialak eta Herritarren Arretarako Zerbitzua (HAZ).

**7.6. Udala orain arte bezala kudeatuko dugu,** seriotasunez, eraginkortasunez eta gastu publikoan efizientziaz arituta, aurrekontuetan orekari eutsita beti.